

Hemi Aldizkaria

2001eko abendua 73. alea

Gabonak ate joka

ELKARRIZKETA: JULEN GARRALDA

ERREPORTAIA: HEMEN DA EUROA

BOTEPONTOAN: OLENTZERO




Zorionak eta urte berri on!!

10 urte zurekin



Bukatzen ari den urte honetan ere, hainbeste lagundu diguzulako, eskerrak eman eta jai zoriontsuak opa nahi dizkizugu. Datorren urtean ere elkarlanean berdin jarrai dezagula.

Eta zure laguntza eskertzeko eta Sasieta-ren **10 urteak** ospatzeko, Eguberri hauetan, **oparitxo** bat jasoko duzu zure etxean. Opari horrekin batera **zozketa** batean parte hartzeko aukera ere izango duzu. **Sari asko dauzkagu, anima zaitetz!**



Zorionak eta urte berri on!



60ko hamarkadan, oraindik aingerutxoak ziren honako hauei ateratako argazkia.

Goialdean: Maritxu Lizarazu, Jesusa Apaolaza, Resurrección Mendizabal, Isabel Torres eta Martxe Maté.

Behaldean: Begoña Garin, Alicia Arbulu, Miren Urdangarin, Maritxu Aparicio eta Cristina Igartua.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

Batasunak, Ormaiztegi-Zumarraga errepideko lanak bukatzeko epea urtebete atzeratu dela azaldu du

Zumarragako Batasunak prentsa ohar bat kaleratu du, Batasuna taldeak Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuari Beasain-Durango errepidea dela eta luzatutako galderak jaso duen erantzuna ezagutzera emateko eta honek sortu dion "harridura eta haserrea" azaltzeko.

Prentsa oharrak dionez, Ormaiztegi-Zumarraga zatiari dagozkion lanak bukatzeko epea 2004ko iraila arte atzeratuko da. "Duela urtebete Batasunaren beste galdera bati erantzunez (2000/12/26) lan horien bukaera 2003 urterako ziurtatzen zen". Honek guztiak zenbait ondorio ateratzera eramandu Batasuna taldea.

1. "Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuak gutxienez 9 hilabete atzeratu dituela Ormaiztegi-Zumarraga bitartean egin beharreko lanak".

2. "Gure herrietako biztanleei ez zaie atzerapenaren eta zergatiaren azalpenik eman".

3. "Beasain-Durango errepide ardatza garatzea, soilik Batasuna taldearen erronka dela dirudi".

4. "Gure eskualdeko biztanleok zergak beste guztiek

bezala ordaintzen ditugu eta ez dugu bigarren mailako herri-tarrak zertan izan behar".

5. "Aspertuta gaude Beasain-Durango inguruko mugimendu bakarrak Batasunaren salaketen ondorioz ematen direla ikusten".

6. "Eibar-Gasteiz errepidean, Beasain-Durango errepidean ez bezala, ez da inolako atzerapenik eman eta ez dago informazio faltarik. Horren atzean interes politiko garbiak dauden susmoa dugu".

7. "Dirudienez, gure alkateak ez du atzerapen hauen berri eta gure ustez, horrek onartezinezko utzikeria azaltzen du".

8. "Foru Aldundiko 2002. urteko aurrekontuen inguruko negoziaketak martxan dira. Foru Aldundiak Zumarraga-Bergara errepidea 2 karriletako egiteko borondatea azaldu du. Publikoki eskatzen diogu Zumarragako alkate den Aitor Gabilondo jaunari beharrezkoak diren gestioak egiteko 4 karrilak errealitate bihurtzeko. Batasuna Udal Taldeak jarraitpen zehatza egingo dio gaiari".

Kilometroak 2002ko logoa, lema eta arropa

Abenduaren lehen Kilometroak 2001eko logotipoa, lema eta arropa aurkeztu ziren Urretxuko Ederrena Pilotalekuan. Frontoia bete zuten ikusleek Ikastolako haurrak, bi herrietako elkarrekin hainbat kide eta herritar ospetsuak pasarela gainean nola moldatzen diren ikusteko aukera izan zuten. Horretaz gain, Karmakros Antzerki Taldeak lema azaltzeko ikuskizun polita eskaini zuen.

Kilometroak 2002ko arropa Zumarragako Legazpi kalean ireki den dendan salgai da. 2002ko Kilometroaken logotipoa alboko argazkiak duzuen da eta leloa, berriz, "Elkarren beharrean" da. Leloak egungo egoera, ikastolen eta ikastola beraren oraina biltzen ditu. Berarekin hainbat gauza eman nahi dira aditzera. Alde batetik, ez dagoela Euskal Herriak bere eskola propioa duenik esaterik eta Euskal Eskola definitzeko eta eraikitzeko gure herrietako eskola eredu guztiek elkarrekin parte hartzea beharrezkoa dela.

Bestalde, Kilometroak festa euskararen festa handi bat da. Bertan, hizkuntzaren normalizazioa aldarrikatzen da eta horretarako, ideologia guztien gaintik, euskaltzale guztien beharra dago.

Horretaz gain, leloak, Ikastolaren eta eskualdearen garapenerako eta Kilometroak festa antolatzeke guztion parte hartzea beharrezkoa dela ere aldarrikatzen du.



Bertso eskolakoak ere pasarelara igo ziren Ikastolako haurrekin.



kilometroak 2002

**elkarren
beharrean**

urretxu-zumarraga

Zoritxarreko istripua

Urretxu-Zumarragako eta Ezkioko herritarrek kolpe latza jaso zuten abenduaren 10ean. Jabier Erostarbek, Joxe Martin Epeldek, Juan Merinok eta Ramon Zalduak heriotza aurkitu zuten zorigaiztoko auto istripuan.

Lauek Altsasuko Sunsundegi enpresan lan egiten zuten, eta, bertara zihoazen, goizeko 6ak inguruan, istripua izan zutenean. Dirudienez, bi kamioik elkar jo zuten, hauetako bat kontrako bidean sartu zen eta lau langileak zeramatzan kotxea aurretik eraman zuen. Lauak bertan hil ziren. Hileta elizkizunak biharamunean, hilaren 11n, izan ziren Ezkion eta Zumarragan. Ezkioko eta Zumarragako elizak txikiak gelditu ziren lau lagunei azken agurra ematera joan ziren guztiek tokia izateko.



Itsaski zozketako otarra Gabirira

Arantza Bidegain eta Jose Inazio Asurabarrena gabiriarrek irabazi zuten Zintzo-Mintzo elkarteak hilero antolatzen duen itsaski zozketako azaroko otarra. Saria abenduaren 7an jaso zuten Ederrena Pilotalekuko kantuan eta ikusi dezakezue-nez, gustura asko itzuli ziren Gabirira.

AGIFESentzat pisua Zumarragan

Gipuzkoako eri psikikoen eta euren familien elkarteak, AGIFESek, pisu bat inauguratu du Zumarragako Elgarrestamendi kalean. Bertan, Urola Garaiko eri psikiko talde bat biziko da eta gainbegiraleen laguntza izango dute. Pisua Zumarragako Udalak doan utzi dio AGIFESi eta mantenuaz Kutxa eta Foru Aldundia arduratuko dira.

Inaugurazio ekitaldian Urretxuko eta Zumarragako alkateak, Pello Gonzalez eta Aitor Gabilondo, bi Udaletako gizarte ongizateko arduradunak, Uxua Busca eta Reyes Gamiz, Kutxa Gizarte Ekintzako zuzendaria, Iñaki Almandoz, eta Gizarte Ongizate Diputatua, Maximo Goikoetxea, izan ziren.

Hauekin guztiekin batera, AGIFESeko ordezkariak, pisuan biziko diren bi gazte eta gainbegiraleak ere izan ziren. Victoriano Arrazolak, AGIFESen Urola Garaiko arduradunak, azken urteetan Legazpi, Urretxu eta Zumarragako Udalek eskaintako laguntza eskertu zuen.

AGIFESen lanaren helburua gaixoak sendatzea eta bergizarteratzea da. Horretarako, oso garrantzitsua da gaixoen independentzia bultzatzea eta pisu honek horretan lagunduko die.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza


Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Huts eta Buhame tak

Erakusketak moeta askotakoak izan daitezke eta toki askotan antolatu daitezke. Arruntena horretarako apropos prestatuta dauden aretoetan egitea den arren, koadroak eta argazkiak erakusteko aterpe bat eta horma bat besterik ez dira behar. Hori dela eta, gero eta tabernari gehiagok erakusketak antolatzen dituzte: artistari laguntzeko, artezaletasuna bultzatzeko eta, bide batez, bezeroak erakartzeko. Abenduan, Concetta Probanza margolariaren eta Oskar Pereira argazkilariaren lanak ikusgai ditugu Buhame tabernan eta Huts tabernan.

Concetta Probanza: "Hiru urte pasatu dira azken erakusketa antolatu nuenetik"



Concetta eta Jose Luis duela hiru urte, Urretxun bizi zirenean.

Concetta Probanzak arte ederrak ikasi zuen eta 1990ean, jada, bere margolanen lehenengo erakusketa eskaini zuen Urretxuko Kultur Etxean. Orduetik, Concettaren koadroak hainbat tokitan ikusgai izan dira: Itarte Etxean, Errenteriko Gaspar galerian, Toledon... Egun hauetan, eskoletan erabiltzen diren argizarizko margoekin egin dituen koadro txikiak Urretxuko Buhame tabernan ikus ditzakezue.

Zer ikus dezakegu erakusketan?

Erakusketa 10 X 15 eta 20 X 25 tamainako 31 koadroz osatua dago. Eskoletan erabiltzen diren argizarizko margoekin egin ditut. Hauek koloreak kentzeko eta jartzeko aukera ematen dituzte eta koadro txikiak egiteko oso aproposak dira. Azkenaldian lanak denbora asko kentzen dit eta ez dut koadro handiak margotzeko astirik. Bestalde, koadro txikiak etxean margotzeko aproposak dira.

Koadroek elkar lotzen dituen ildo bat bala dute?

Ez dute gai zehatz bat jarraitzen, baina denetan gizakiak ikus daitezke. Koadroei, Jose Luis Padronek, nire senarrak jarri die izenburua. Koadroen eta izenburuen helburua ikusleari zer edo zer iradokitzea da. Bakoitzari berea. Erakusketa bere helburua betetzen ari da, ikusi dituen bakoitzak zer edo zer ezberdina iradoki diela esan baitidate. Bestalde, erakusketaren izenburua "Matsa denboran" da. Honekin, uzta biltze garaia aditzera eman nahi dut. Izan ere, esan bezala, lana dela eta, oso gutxi margotu dut azkenaldian eta hiru urte pasatu dira jada aurreko erakusketa eskaini nuenetik.

Koadroak margotzeaz gain, beste lan batzuk ere egiten dituzu...

Egun Zarauzko Itxaropena inprimategian nabil diseinu lanetan. Bestalde, Erein argitaletxeak ateratzen dituen libu-

ruetako marrazkiak egiten ditut, DVren Zabalik astekarirako astero komiki bat margotzen dut, Bilbao egunkariko Pergola gehigarriko ere lan egiten dut...

Lana dela eta, Jose Luis eta zu Zarautzera joan zineten bizitzera, zer moduz bertan?


Ezberdin sentitzen naiz. Zarautz, itsasoa dagoenez, Urretxu eta Zumarraga baino irekiagoa da eta argi gehiago dago. Hemen zeruia zoragarria da. Urretxu-Zumarraga mendi artean dago eta zailagoa da zeruia ikustea. Zarauzko argitasuna oso garrantzitsua da margotzeko. Dena den, ez dut uste honek nire margoetan eraginik izan duenik.

Zer asmo dituzu etorkizunerako?

Lanean jarraitzea. Bestalde, koadroak abendu bukaera arte egongo dira Buhamen eta, ondoren, beste toki batzuetan erakustea gustatuko litzaidake.

ernetan erakusketak

Oskar Pereira: “Jam aretoa nire bigarren etxe bihurtu da”



Oskar, Huts tabernan jarri duen argazkietako baten aurrean.

Oskar Pereira zumarragarrik duela 5 urte Gorka Salmeronek eman zuen argazki ikastaro batean parte hartu zuen. Gorkak Oskarri argazkigintzaren arrazartzea lortu zuen eta Oskar Gorkari oso eskertua dago. Rock musika ere asko gustatzen zaionez, Oskarrek bi zaletasunak uztartzea erabaki zuen. Hori dela eta, kontzertuetan argazkiak ateratzen hasi zen. Ordutik, makina bat kontzertutan izan da argazkiak ateratzen.

Nondik nora ibiltzen zara argazkiak ateratzen?

Gehienak Euskal Herriko aretoetan ateratzen ditut. Bergarako Jamen, Iruñeko Artzaian eta Bilboko Kafe Antzokian, batez ere. Jam nire bigarren etxea bihurtu da. Bergarako Txibisto dantzalekua itxi zenean, hutsune handia gertatu zen eta Euskal Herrira askoz ere talde gutxiago etortzen ziren. Eskerrak Jam ireki zuten. Bertan antolatzen dituzten kontzertu ia guztietara joaten naiz.

Zer talderen argazkiak bildu dituzu erakusketan?

The Animals, L7, Faith No More eta beste askoren argazkiak bildu ditut. Hauetaz gain, herriko The Hot Dogs eta Soul Band taldeen argazkiak ere ikusi daitetzke. Argazki gehienak 10 X15 eta 20 X30 tamainakoak dira, baina metro bat baino gehiagoko zabalera dute. Denak handiak atera nahi nituen, baina tabernan ez zegoen horretarako tokirik. Erakusketa Donostian eta Errenterian ere jartzeko asmoa dut eta bertan tamaina handian jartzzen saiatuko naiz.

Argazkiak salgai al daude?

Salgai daude, bai. Talde zehatz baten zaleak direnak edo kontzertu horietako batean egon zen jendeak, argazki

hauetako batzuk etxean izateko gogoia izan dezake. Argazki hauek tratamendurik ez dutela, esklusiboak direla eta ateratzeak lan handia eman didala esan beharra dago.

Izan ere, ez da batere erraza izango rock kontzertu batean argazki onak ateratzea...

Hala da. Hasteko, argi baldintzak ez dira onenak izaten. Bestalde, kontzertu askotan lehenengo bi edo hiru abestietan soilik uzten dizute argazkiak ateratzen eta oso argi izan behar duzu zer lortu nahi duzun, bestela denbora joaten baitzaizu. WASPen kontzertuan ulertu nuen hau zergatik den horrela. Hauek eskenatokira oso txukun, makilaturik, ateratzen dira. Baina kontzertuak aurrera egiten duen heinean nahiko itxura negargarria hartzen dute.

Kontzertuetan argazki onak ateratzeko, zer da garrantzitsuena?

Garrantzitsuena zer lortu nahi duzun argi izatea da. Horretarako, kontzertua hasi aurretik, taldea ikusten dut eta orduan erabakitzen dut zer nahi dudana. Kontzertua


hasten denean oso konzentratu egon behar duzu eta gustuko duzun keinu bat, pose bat... ikusten duzunean di-da argazkia atera. Honetan ere, kalitatezko lana egitea zaila da.

Zein da zure lanaren helburua?

Nire ustez, gizarte honetan futbolari, sukaldaritzari... gehiegizko garrantzia ematen zaie eta musika, argazkigintza eta antzerakoak baztertuak daude. Bestalde, gaur egun, jendea jada ez da garai batean bezainbeste hunkitzen rock taldeekin. Nire helburua rock musikaren alde kulturala erakustea eta jendeari hurbiltzea da.

Etorkizunean, zer asmo dituzu?

Euskal Herriko kontzertuetan argazkiak ateratzen jarraituko dut. Baina, musika mundua oso zabala denez, Ingalaterrara eta Estatu Batuetara joan nahi dut argazkiak ateratzera. Bertan, rock musikaren tokirik enblematikoenen argazkiak atera nahi ditut: Ruta 66, Las Vegas, Nevada, Seattle... Hasteko, datorren urtean Mississippi ibaian behera joan behar dut.



Gotzon Aranburu

Ni aberatsa banintz...


Bi gauza zor dizkiot Kutxari. Bata, pisuaren kreditua, ia osorik. Bestea, irakurzaletasunaren zati handi bat. Kredituarenak azalpen gutxi behar du, irakurle gehienek ondo dakite eta hamar eskatu eta hamabost itzultze hori zer den. Beharko itzuli, gainera, kotatik botako ez bagaituzte.

Irakurzaletasunarena, berriz, kota eta kotakide bila hasi aurreko garaietatik dator, alegia, dozena bat urte baino ez nituenetik. Orduan -harrigarria da bizitzak zenbat buelta ematen dituen, ibili ibili eginda okerrago geratzeko- nire etxean sartu egiten zuten dirua Kutxan, sartu, oso noizbehinka eta lau txanpon izango baziren ere. Alegia, hileroko soldatetik zerbait aurreztea lortu egiten zuten. Harrigarria hau ere, baina badu bere arrazoia. Esaterako, orduko kotetan sortutako txitek oraingoek baino kontu gutxiagorekin hazten ziren.

Kontuak kontu, garai haietan Kutxak liburuak oparitzen zituen dirua sartuz gero, orain erlojuak edo bideo-kamerak oparitzen dituen bezala. Egia esateko, ez daukat gogoan orduan ere honelako opari baliotsurik egiten zuten, baina seguru nago gaur egun liburutik ez dutela oparitzen. Bai, badakit ez dela opari bat, aurrez ondo ordaindutako sariak direla. Hitz egiteko era bat da, errentaren deklarazioa egitekoan "kobratzea" suertatu zaigula esaten dugunean bezala. Geure buruari esaten dizkiogun gezurtxo hauek lasaigarriak dira eta ez dugu kezkatu behar. Bada hori, Kutxak liburuak oparitzen zituela: Julio Vernerren "La vuelta al mundo en 80 días" edo Enid

Blytonen "Los siete en la isla del tesoro" bide horretatik sartu ziren gure etxera. Bai gustura irakurri ere, bi edo hiru aldiz bakoitza. Oraindik ere gordeta dauzkat pastak askatutako liburutxo haiek, ondorengo urteetan eskuratutako beste ehundaka batzuren ondoan. Hauetako ez gutxi Salgariren piratek baino gozamen gutxiago eman didate.

Azken aldi honetan, nobedadeen diktaduratik ihesi, liburu zaharren mundu erakargarrian muturra sartzen hasi naiz, eta harrিতa nago oraindik ere euskarazko zenbat liburu zahar aurkitu daitezkeen ikusita. Benetan zaharrak esan nahi dut, alegia, ehun urte baino gehiago-koak, gure hizkuntzaren bitxiak. Esaterako, Manuel de Larramendik 1745ean osatutako hiztegia, "Diccionario Trilingüe bascuence-castellano-latín", inoiz gure hizkuntzan idatzitako lehengoa, badakit nik Madrileko zein anti-goaleko liburu dendan dagoen salgai, berrehun mila pezetarekin nor azalduko zain. Eta nik topatu badut, euskal instituzioetan ari den tekniko eta liburuzaintzaile mordoak ere aurkituta izango du. Kutxak berak ere, bezero gizajooi ateratzen dizkigun txanponen milioiko zero koma zero zero batarekin nahikoa izango luke Larramendi hau Euskal Herriratzeko. Nola utzi dezakete honelako aukera pasatzen? Aurtengo Gabonetako Loteria tokatzen bazait, lehendabiziko lana liburu hori erostea, berreskuratzea, izango dut. Hala, gainera, Espainiako loterian jokatzegatik daukan kontzientzia txarra lasaituko dut. Gutxi al da?



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050


Fax: 764050 20570 BERGARA

Zer eskatu diozu Olentzerori?



Balbina Gonzalez

Osasuna eta lana, bestela zer eskatuko diogu bada? Beste zer edo zer eskatzekotan, gizartea pixka bat hobetu dadila.



Belen Martin

Eskatzen hastekotan gauza asko eskatuko nizkioke... Momentuz, dirua edo lana eta osasuna eskatuko dizkiot. Baita pakea eta askatasuna ere.



Elena Solana

Lana izatea eta diru faltan ez egotea. Loteria tokatzen bazait... hobe. Bestalde, pakea eta gizartean dauden arazoentzat konponbidea ere eskatuko nioke.




Pepe Martinez

Zilarrezko erloju bat gustura hartuko nuke! Baina, zapata pare bat ekartzan badit, ez naiz kexatuko. Baita pakea lortzea eta munduan dagoen gosearekin bukatzea ere.



Mari Jose Olazabal

Osasuna batez ere... baina, kotxe bat ere gustura hartuko nuke. Bestalde, gizartearentzat, pakea eskatuko nuke.



Joana Carro

Kotxe bat, berdin zait zein. Izan ere, karneta aspaldi atera nuen, baina ez dut kotxerik. Azterketak gaintitzen laguntzea ere eskatuko nioke.

BIONA


AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbica

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Julen Garralda, XXI.

Julen Garraldak beti izan du bidaiatzea gogoko eta Amerikak, bereziki, asko erakarri dio. Hala izanik, ez da harrizkoa duela urte batzuk Legazpiko Komite Internazionalisten taldearekin harremanetan jartzea eta El Salvadorera joatea erabakitzea. Ondoren, Guatemalan izan zen hiru urtez, Mugen Gaietik Gobernu Kanpoko Erakundearekin lanean. Azken urte hau, berriz, Hegoamerikan zehar bidaiatzen eman du. Azaroan itzuli zen herrira eta abendu hasierako arratsalde batean bidaia hauetan guztietan bizitakoez hitz egiten izan ginen berarekin.

Nolatan hasi zinen Ameriketara hain denbora luzerako joaten?

Bidaiatzeak beti zoratu nau: txikitant atlasa hartu eta nire irudimenean bidaiatzen hasten nintzen. Bestalde, Amerikak betidanik oso esanahi berezia izan du niretzat, ezin dut zergatia azaldu. Hori dela eta, Ameriketara joatea ez da harrizkoa. Baina, Ertamerikako gertaera politikoek beti nire jakinmina piztu zuten arren, El Salvadorera eta Guatemalara ia kasualitatez joan nintzen. El Salvadorera joan aurretik, adibidez, Komite Internazionalistak Legazpin duen taldekoengan joan nintzen eta beraiek proposatu zidaten bertara joatea.

Nora joan zinen lehenengoz?

1994an El Salvadorera joan nintzen eta bertan lau hilabete eman nituen komunitate batean bizitzen. Komunitate honetan, gerrillako kide ohi asko bizi ziren eta udal hauteskundeak irabaztea lortu zuten. Ni kultura eta hezkuntza aholkulari izendatu ninduten, baina beraiek ez zuten ezer egiten eta kultura alorra nire esku utzi zuten. Ni laguntzeko prest nengoen, baina ez nengoen euren kultura politika diseinatzeko prest. Hori dela eta, alor horretan ezer ez egitea erabaki nuen. Azkenean denetik pixka bat egiten aritu nintzen: eskola erakitzen laguntzen, irakasleei material didaktikoa nola erabili irakasten...

Ondoren Guatemalara joan zinen...

Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE) zerrenda bat egin nuen eta Mugen

Gaietik lehenengoa jarri nuen. Izan ere, hauek ez zuten dirua eskatzen, beraiekin harremanetan jartzea baizik. Informazio eske joan nintzen, arduradunak argazki batzuk atera zituen eta "honuntza joango zinake" esan zidan. 1997an joan nintzen eta bertan ia hiru urte eman nituen. Lehenengo urtebete eman nuen eta hiru hilabeterako Urretxura itzuli ondoren, beste urte eta erdirako joan nintzen.

Non izan zinen zehazki?

Indigenen herri batean izan nintzen. Hauek, 90eko hamarkada hasieran, armadaren sarrasketatik ihesi, Mexikon errefuxiatu ziren, eta, ondoren, Guatemalara itzuli ziren. Bizitza berreraiki nahi zuten eta horretarako komunitate-lanean oinarritu ziren. Ni joan baino urtebete lehenago armadak berriro ere eraso egin zien eta hamaika pertsona hil zituen. Ez zuten ihes egin eta armadari salaketa jarri zion lehenengo komunitatea izan zen. Izan ere, erbestean zeudela euren eskubideak ikasi zituzten, antolatuta itzuli ziren eta euren eskubideen alde borrokatzea erabaki zuten.

“Bakarrik bidaiatzea atsegin dut, honela tokian tokiko jendearekin harremana izatera beharturik bainago”

Zein zen zure lana?

Bertako irakasleekin ingurugiro heziketa lantzen aritu nintzen, euren bizimodua ingurugiroari kalterik egin gabe aurrera atera zezaten. Bestalde, bertan geunden atzeritarrok, segurtasun pixka bat ere ema-

ten genien, antolaketan eta epaiketako kon-tuetan laguntzen genien...

Zuretzat ere aberasgarria izango zen beraiekin egotea...

Oso aberasgarria. Indigena komunitate batean bizitzeak bizimodu oso ezberdina egiteko aukera eskaintzen dizu. Oihanean, beraiek bezala, bizi nintzen: beraiek jaten zutena jaten nuen, beraien pentsamoldea ezagutu nuen... Bestalde, bertako egoera politikoari



mendeko Iparragirre

buruz asko ikasteko aukera ere eskaini zidan.

Zer bait bereziki deigarria iruditu al zitzaizun?

Borrokatzeko sekulako ahalmena dute. Behin eta berriro zanpatuak izan diren arren, altxatu eta nola hala aurrera egiten dute. Hiru sarraski bizi zituen jendea ezagutu nuen eta oraindik giza eskubideen alde lanean jarraitzeko adorea zuten.

Azken urtebete hau, herriz, Hegoamerikan eman duzu...

Azken bidaia honetan, Guatemalan ezagutu nituen argentinarrak bisitatzeko eta beraien herriak, etxeak... ezagutzen izan naiz. Inongo ideia finikorik gabe joan nintzen eta azkenean urtebete eman dut bertan. 5-6 hilabete lagunak bisitatzen eman ditut, Buenos Airesen eta Patagonian. Ondoren, Txilen, Bolivian, Perun... izan naiz Argentinara itzuli aurretik. Hegoamerika oso handia denez, ezin duzu dena ezagutu.

Hegoamerika hain handia izanik, nola mugitu zara alde batetik bestera?

Toki bakoitzean, bihotzak beste toki batera joatea agindu didan arte geratu naiz. Toki gehienetan denbora dexente eman dut, gutxienez astebete, bestela ez baitago ezer ezagutzerik. Izan ere, bidaiatzeak eskaintzen dizun gauzarik aberasgarriena jende oso ezberdina ezagutzeko aukera da. Urtebetean Ushuaiatik Alaskaraino joan zaitezke, baina nik jendea ezagutu nahi nuen. Argentinan etxeetara sartu nahi nuen, nola bizi diren, zer jaten duten, zer arazo dituzten... jakiteko. Hegoamerikan eta

Julen, Ertamerikan ezagutu zituen lagun argentinarrekin eta euren familiarekin Argentinako Patagonian.



Ertamerikan oso gutxierekin bizi daitekeela ikasten duzu.

Azken bidaia honetan, ez duzu lanik egin, ala?

Ez, dirua aurreztua nuen eta bertan ahalik eta gutxien gastatzen ahalegindu naiz. Argentinan "gasolero" deitzen diete ni bezala ibiltzen direnei. Leku batetik bestera joateko dedo egiten nuen, janaria nik prestatzen nuen, kanpin dendan edo lagunuen etxeetan lo egiten nuen... Bestalde, oinez ere kilometro asko egin ditut eta bizkarra zisko eginda dudala iritsi naiz. Izan ere, 20 bat kiloko motxila bizkarrean dudala, mendian kilometro asko egin ditut. Toki batera heltzen nintzen bakoitzean, mendia ezagutzera joaten nintzen.

Beti bakarrik bidaiatu duzu, ez al duzu sekula arazorik izan?

Bakarrik bidaiatzea atsegin dut, honela tokian tokiko jendearekin harremana izatera beharturik bainago. Bestalde, bakarrik joanez gero, erabaki guztiak norberaren esku daude. Arriskutsua izan daiteke, baina beti gerrateak bukatuak zeuden tokietara joan naiz. Bortizkeria eta lapurretak ikusi ditut, baina zorionez ez zait sekula ezer gertatu. Herri txikietan ez dago inongo arazo-

rik, baina hirietan nondik nora zabiltzan jakin behar duzu.

Bidaia hauen guztien ondoren, aldatu zarela uste al duzu?

Hala espero dut. Gauza asko ikasi ditudala uste dut eta pixkanaka nire bidea egiten ari naiz. Duela hamar beste pertsona bat nintzen, beste interes batzuk nituen... Dena den, bidaiatzea asko atsegin dudan arren, kanpoan nagoenean herria faltan somatzen dut. Izan ere, nire sustraiak hemen daude. Itzulera ere oso polita izaten da, familia eta lagunak ikusteko irrikitan izaten bainaz. Itzultzen naizen bakoitzean teknologiak aurrera nola egin duen ikustek harritzen nau: antena parabolikoak zirela, sakeleko telefonoak eta ordenadoreak direla... Bestalde, hemen zenbat argi artifizial erabiltzen dugun ikustek ere harritzen nau.

Hurrengoan nora joango zaren pentsatu al duzu?

Ezagutu nahi ditudan mila herrialde daude, baina oraindik ez dut erabaki nora joango naizen. Hain bidaia luzea egiten ez badut, beharbada Afrika iparraldera joango naiz. Azkeneko bidaia honetan egunean eguneko bizi behar dela ikasi dut, hurrengo egunekoan pentsatu gabe.

Santa Lutzita



ko feria 2001

Barazki, fruta eta errezil sagar lehiaketak

Zumarragako fruta lehiaketa

1. saria: Agustina Iradi (Hernani).
 2. saria: Antonia Murgiondo (Gabiria).
 3. saria: Maria Etxezarreta (Gabiria).
- Eskualdeko lote onenari saria:
Antonia Murgiondo (Gabiria).

Zumarragako barazki lehiaketa

1. saria: Jose Manuel Zabalegi (Donostia).
 2. saria: Jesus Artola (Anoeta).
 3. saria: Mercedes Urien (Bergara).
- Eskualdeko lote onenari saria:
Antonia Murgiondo (Gabiria).

Urretxuko barazki lehiaketa

1. saria: Antonia Murgiondo (Gabiria).
2. saria: Jose Lonbide (Aretxabaleta).
3. saria: Elena Niño (Urretxu).

Zumarragako errezil sagar lehiaketa


1. saria: Mari Carmen Uranga (Hernani).
 2. saria: Agustina Iradi (Hernani).
 3. saria: Antonia Murgiondo (Gabiria).
 4. saria: Maria Isabel Zumalakarregi (Gabiria).
 5. saria: Maria Etxezarreta (Gabiria).
- Eskualdeko lote onenari saria:
Antonia Murgiondo (Gabiria).

Urretxuko fruta lehiaketa

1. saria: Kontxi Izagirre (Berriz).
2. saria: Antonia Murgiondo (Gabiria).
3. saria: Joxe Lonbide (Aretxabaleta).



Ferretería **B**RAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

Santa Lutzita

Oilasko eta kapoi lehiaketa



Kapoi lehiaketa

Euskal arrazako kapoiak:

1. saria: Xabier Goikoetxea (Albistur).
2. saria: Juan Aranburu (Ezkio-Itsaso).

Arraza arrunteko kapoiak:

1. saria: Jose Ugartemendia (Errezil).
 2. saria: Maria Jesus Etxeberria (Errezil).
- Zumarraga-Urretxuko kapoi pare onena:
Jose Anjel Lizarraga (Urretxu).

Oilasko lehiaketa

Euskal arrazako oilaskoak:

1. saria: Mari Carmen Uranga (Hernani).
2. saria: Maria Luisa Zuriarrain (Albistur).

Arraza arrunteko oilaskoak:

1. saria: Itziar Agirrebengoa (Zumarraga).
 2. saria: Pablo Izagirre (Urretxu).
- Zumarraga-Urretxuko oilasko pare onena:
Antonia Pildain (Urretxu).

Ardo lehiaketa



1. saria: Bodega Saenz de Samaniego Zuñeda (Samaniego).



Ezti lehiaketa

1. saria: Patxi Imaz (Legazpi).
2. saria: Jostxo Urteaga (Beasain).
3. saria: Jose Mari Izagirre (Idiazabal).

ko feria 2001

Pottoka arraza. "A" atala

- Hazitarako zaldiari sari berezia:
Narciso Arrillaga Balda (Zubieta).
- Urteko moxalik onena:
Zaldibia Aralar Pottoka Elkarte.
- Behorrik onena:
Zaldibia Aralar Pottoka Elkarte.
- Zaldirik onena:
Jose Mari Lopez Aperribai (Donostia).



Abere lehiaketa

Pottoka arraza. "B" atala

- Urteko moxalik onena:
Patxi Aranburu (Orio).
- Behorrik onena:
Patxi Aranburu (Orio).
- Haragitarako eskualdeko abere talde onena:
Jose Ramon Peñagarikano (Gabiria).
- Haragitarako urteko moxalik onena:
Jose Ramon Peñagarikano (Gabiria).
- Haragitarako behorrik onena:
Jose Ramon Peñagarikano (Gabiria).
- Haragitarako zaldirik onena:
Eusebio Urrestarazu (Idiazabal).

Muntaiak e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Belarretu
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belarretu

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia,5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

ARRAINDEGI
baterako pertsona bat
behar da
BERGARAN

☎ **607 66 02 44**

Hemen d

Urte osoan "badatorrela, badatorrela..." entzuten egon ondoren, hemen dugu azkenean zorioneko euroa. Bankuak, aurrezki kutxak eta merkatal gune handiak irailaren 1ean hasi ziren euroak jasotzen. Dendariek, berriz, abenduaren 1etik aurrera pezetak euroengatik aldatzeko aukera izan dute. Irailaren 15etik aurrera, banke-txeetako kontuetako informazioa eurotan jaso dugu eta abenduaren 15a gerotik "eurozorroa" erosteko aukera dugu.

Urtarrilaren 1etik aurrera, kutxa-zainek euroak soilik emango dituzte eta eurotan ordaintzen hasiko gara. Martxoaren 1a arte, eurotan eta pezetatan ordaindu daiteke. Dena den, dendariek dirua eurotan itzuliko digutenez, seguraski, askoz ere lehenago pezetarik gabe geratuko gara. Martxoaren 1etik aurrera, eurotan soilik ordaindu daiteke eta pezetek truke-rako soilik balioko dute. 2002ko ekainaren 30etik aurrera, pezetak Banco de Españañ soilik aldatu ahal izango dira.

Astebete baino pixka bat gehiago ez da gelditzen, beraz, euroak erabiltzen hasteko. Orduetik aurrera, aspaldiko partez, xentimoak erabiltzera ohitu beharko dugu. Izan ere, txanponik gehienak xentimokoak izango dira: 1, 2, 5, 10, 20 eta 50 xentimokoak, hain zuzen ere. Hauetaz gain, euro 1eko eta 2ko txanponak eta 5, 10, 20, 50, 100, 200 eta 500 euroko billeteak izango dira.


Txanpon berrira egokitzeak buruhausteren bat edo beste ekarriko digu, euroak pezetatan kalkulatzea ez baita batere xamurra. Izan ere, euro bat 166,386 pezeta dira. Dena den, lehenbailen pezetetaz ahaztu eta eurotan soilik pentsatzen hasi beharko dugu, esan bezala, martxoaren 1etik aurrera ezingo baitira pezetak erabili. Lehen egun hauetan zortu ez zaitezten, hona hemen txanpon berrira egokitzeko hainbat argibide: pezetatik eurora bihurtzeko erregela eta txanpon eta billete berrien itxura.

Dena den, dirua eskutan gehien erabiltzen dutenak izango dira txanpon berriaren etorrera gehien pairatuko dutenak. Hori dela eta, herri gehienetan dendariek eurora egokitzeko ikastaroak egin dituzte. Bestalde, Urtezahar-gaua kaosa bihur daiteke gau horretan parrandan ateratzen den jendea euroekin ordaintzen hasten bada. Hau guztia ikusirik, Iñaki Fidalgo, Bi Tartean elkarteko presidentearekin, eta The Intrepid Fox eta Florida tabernetako Iñaki Lizarralderekin eta Estela Herrerorekin izan gara.

Pezetak	Euroak
1	= 0,006
5	= 0,03
10	= 0,06
25	= 0,15
50	= 0,30
100	= 0,60
200	= 1,20
500	= 3,01
1.000	= 6,01
2.000	= 12,02
3.000	= 18,03
4.000	= 24,04
5.000	= 30,05
6.000	= 36,06
7.000	= 42,07
8.000	= 48,08
9.000	= 54,09
10.000	= 60,11
25.000	= 150,25
50.000	= 300,51
100.000	= 601,01

Euroak	Pezetak
0,01	= 2
0,02	= 3
0,05	= 8
0,10	= 17
0,20	= 33
0,50	= 83
1	= 166
2	= 333
3	= 449
4	= 666
5	= 832
6	= 998
7	= 1.165
8	= 1.331
9	= 1.497
10	= 1.664
20	= 3.328
50	= 8.319
100	= 16.639
200	= 33.277
500	= 83.139


PEZETATIK EURORA BIHURKETA ERREGELA



Adibideak:
 8.750 pta. / 166,386 = 52,588 euro, 52,59 euro
 150 pta. / 166,386 = 0,901 euro, 0,90 euro

a euroa


EUROTIK PEZETARA BIHURKETA ERREGELA



Adibideak:


0,60 euro X 166,386 = 99,8316 pta., 100 pta.

14 euro X 166,386 = 2.329,404 pta., 2.329 pta.



Iñaki Fidalgo: "Herriko dendariak oso ondo prestatu gara euroa heltzen denerako"

Iñaki Fidalgo, Hezkor elektrotresna dendakoa, Bi Tartean elkarteko presidentea da. Dendariak egunean zehar diruarekin hartueman handia dutenez, berarengana jo dugu txanpon berrira egokitzeko zer neurri hartu dituzten eta txanpon aldaketak zer buruhauste ekarriko dizkien jakiteko. Iñakik esan digunez, duela hilabete batzuk dendari asko urduri samar bazeuden ere, ikastaro bat egin dute eta egun nahiko lasai daude.



Egun gutxi barru euroa erabiltzen hasiko gara, dendariak urduri al zaudete?

Duela hilabete batzuk psikosi handia zegoen herriko dendarien artean. Askok eurora egokitzeko ikastaroa antolatzea eskatu zuten eta hala egin genuen. Ikastaro hauetara elkarteko dendari gehienak joan ginen eta orain dendariok askoz ere lasaiago gaude. Izan ere, ikastaro sakona eta gogorra izan zen.

Zein zen dendarien kezka nagusia?

Jende gehienak biribiltzearen kontuari beldur handia zion, baina ikastaroan oso gauza sinplea dela ikusi zuten eta asko lasaitu ziren. Ikastaroa amaitu ondoren, dendarien artean inkesta txiki bat egin genuen eta gehienek ikastaro horrekin nahikoa zela eta prestatuak zeudela erantzun zuten.

Dena den, txanpon aldaketak buruhausteren bat ekarriko dizuela uste al duzue?

Nik, elektrotresnak saltzen ditudanez, unitate gutxi saltzen ditut eta ez dut uste arazo handirik izango dudarik. Salneurri txikiko produktu asko saltzen dituztenek nahaste handiagoa izango dute la uste dut. Bestalde, martxoaren 1a arte bi txanponak erabili daitezke eta nahasketak egon daitezke. Dendariok bi arazo izan ditzakegula uste dut. Batetik, jendeak, txan-

pon berriekin nahasteko beldurrez, kreditu txarteekin gehiagotan ordaintzea gerta daiteke. Bestetik, pezeta faltsuak dituztenek bi hilabete soilik dituzte hauek erabiltzeko eta dendariak argi ibiltzeko esango nieke. Dena den, arrisku hau hirietan handiagoa izango da.

Zer esango zenieke bezeroei?

Lasai egon daitezela. Bi Tarteaneko dendari gehienok ikastarora joan ginen eta Eusko Jaurlaritzak euroaren etorrerarako prestatuak dauden dendariak ematen dien Eurologoa dugu.

Dena den, ikastarora joan ez zirenak eta, beraz, Eurologoa ez dutenak ere oso ondo prestatuak daudela badakit.

Batzuk mesfidantza izango dute...

Herrietan beti denda beretan erosten dute eta saltzailea soberan ezagutzen dute. Badakite inor ez zaiela iruzur egiten saiatuko. Hankasartzeak egotea ere oso zaila da, esan bezala, herriko dendariok oso ondo prestatu baikara. Jendeari, zer txanponekin ordaintzen ari den baino, nori erosten ari zaion kontuan hartzeko esango

nioke. Baliteke, lehenengo asteetan jendeak ordaintzeko orduan zenbat ordaintzen ari den, zenbat itzultzen ari dioten... begiratzen hastea eta ordaintzeko orduan ilara luzeak egotea. Dena den, bezeroei lehenbailehen pezetatan kalkulu egiteari uzteko eskatuko nieke.

Urtezahar-gaueko zoramena

Urtezahar-gaueko parrandan sekulako nahastea sortu daiteke jendea euroak erabiltzen hasten bada: tabernariak sekula baino denbora gehiago beharko dute bueltak emateko eta normalean inork ez badu botea eraman nahi, gau horretan zer esanik ez!

The Intrepid Fox tabernako Iñaki Lizarralde eta Florida tabernako Estela Herrero esan digutenez, "teorian bueltak eurotan ematera behartuak gauden arren, ez dizkigute gau horretan beharko ditugun haina euro eman. Euroak bukatzen zaizkigunean bueltak pezetatan itzuliko ditugu".

Tabernariak ez dute uste euroari egokitzea asko kostako zaienik, baina, "guretzat okerrena, euroa erabiltzen urtarrilaren 1ean hasiko garela da. Moldatuko gara, baina, beharbada, poteoa sekula baino mantsoagoa izan daiteke. Egun horretan egin daitekeen onena, etxetik nahikoa pezetekin ateratzea da".

FAMILIA BABES ASEURUA

-MEDIKUNTZA PRIBATUA.
-HORTZ KLINIKAK.
-TRAFIKO ISUNEN ERREKLAMAZIOAK.



-BABES JURIDIKOA: abokatu pribatua.
-HERIOTZ ASEURUA.
-ISTRIPU ASEURUA.
-BIDAIA LAGUNTZA.

Labeaga, 16 URRETXU
☎ 943 72 93 69

La Previsora Bilbaina, S.A.
Aseguru etxea

GUGGEMHEIM BILBAO
museoari atxikituriko enpresa



Ainhoa, ez al diguzu irrifarre txiki bat eskaini behar? Ea Olentzeroren opariak ikusten dituzunean pixka bat alaitzen zaren...



Ainhoa, nora begira zaude horren adi? Olentzero noiz helduko zain al zaude? **Zorionak** eta urte berri on!



Zorionak aitona eta eskerrik asko euskara gure hizkuntza dela erakusteagatik. Ondo pasa Gabonak eta urte berri on!



Alfon, aurten ere "La matanza de Texas"eko lagunarekin etorri zara... honela gu ere lasai asko egongo ginatete! **Zorionak!**



Ander, hori da hori alproja aurpegia duzuna! Olentzero gure irtzi berdinekoa bada jai duzu! Zorionak eta ondo ibili!



Andoni, ez al zenuen Santa Lutzitako herri kirol saioetan parte hartu? Hi haiz hi morroskoa! **Zorionak** eta ondo ibili!



Anes, "El fugitivo" dirudik: herriko neska guztiak hire atzetik eta hi ihesi! Egunen batean nekatuko haiz eta harrapatuko haute!



Hodei, Olentzerok Camelaren disko berria oparitu behar dizula esan digu. Zorionak eta urte berri on!



Jabier, Gabonetan zaindu ezazu zure burua, bestela kolesterolak gora egiten du eta! **Zorionak** eta urte berri on!



Iepa Kalimero! Ea aurtengo Gabonetan ohi baino alaiago ikusten zaitugun. Zorionak eta ondo pasa Gabonak!



Jebi, etxeko lanak egiten duzun "abilezia" erakutsiko zenuen jada... Zure emaztea al da Realeko fitxaketak egiten dituen?



Jose Luis, Olentzerok zure koadroak erosi nahi dituela esan digu. Erriberan galdu egiten baita. **Zorionak** eta urte berri on.




Azken urtean zientziak aurrerapausu nabarmenak eman dituen arren, oraindik ez du lortu bi hauen buruak banantzea. Txoriburu pareta osatu beharrean, buru adimentsu bakarra osatuko balute sikira! **Zorionak Jonatan eta David!** Ondo pasa Gabonetako oporrak!



Julen, kezkatuta zaudela dirudi, motel! Lasai Olentzerok zuretzat ere zerbait izango du eta! **Zorionak** eta ondo ibili!



Julene, ea behingoz argazkilariari kasu pixka bat egiten diozun, beti albo batera begira harrapatzen zaitugu eta!



Luis Mari, eskuintara duzuna kristautzea Haritxelarri Mayor Oreja eskalduntzea baino gehiago kostako zaizu! **Zorionak!**



Mac Arra, "El dia de la bestia" filman Santiago Seguraren ordezkaria izan al zinen eszena arriskuetsuetan? Ondo ibili!



Kontuz Maialen, erori egingo zara eta! Argazkilariari adi egotea ondo dago, baina ipurdia non jartzen den ere kontuan izan behar da!



Maialen, buruan palmondoa hazi al zaizu? Hori da hori mototx xele-break jartzen dizkietenak egungo haurrei! **Zorionak** eta ondo ibili!



Maria, zu bai emakume alai eta bizia! Zorionak, ondo pasa urtebetetze eguna eta urte berri on!



Maria Jesus, hori da hori irrifarra! Aurten ondo portatu zara nonbait eta Olentzeroren opariak zain zaude! **Zorionak!**



Mikel, zer moduz portatu zara aurten? Lasai, ez dirudi oso bihurria zarenik eta Olentzero ere ondo portatuko da zurekin!



Pilar, argi ibili ezkerretara duzun horrekin, edozein momentu ona baita berarentzat adarra jotzeko! **Zorionak!**



Hau bai neska pinpirina! Nabari da bai Tolosakoa dela eta ez Urretxu-Zumarragakoa! **Zorionak Saioa** eta urte berri on!



Tomas, ez da harritzekoa aurpegia ez ikustea... buruan jarri duzun pizzak itzal egiten dizu eta! **Zorionak!**



Txus, eskerrak txapela jarri duzun... bestela, sekulako "John Travolta" itxura izango zenue! **Zorionak** eta urte berri on!




Udane, oraingon ere argazkilariak ez zaitu oso adi harrapatu... **Zorionak** eta ondo pasa Gabonetako oporrak!



Unai, argazkian txintxo dirudizun arren, bihurri xamarra zarenaren susmoa dugu... Zorionak eta ondo pasa Gabonetako oporrak!



Ane, txintxo aurpegia jartzen ari al zara Olentzero heltzen denerako? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna.



RENEDO argazkiak
Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
Labeaga 52-54 F URRETXU
☎ 725682 ☎ 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

ARRUPE
TABERNA

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Autoan zirrarara sentitze

Oraindik ez dituzte 25 urte bete, baina jada bizpahiru denboraldi daramatzate rally, igoera edo rally-sprint bezalako auto-lasterketetan lehiatzen. Jon Izagirre, Joseba Irizar eta Rober Garcia dira. Hamaika zailtasunez eta trabez ilunduriko kirol honetan, ilusioa da oraingoz bidea argitzen dien bakararra. Jonek lehen klasean korritzen du, hau da, 1.400 arteko zilindrada duten autoekin. Joseba eta Rober, aldiz, bigarren klasean ari dira, hots, 1.400-1.600 bitarteko zilindrada duten makinak gidatzen dituzte. Lortutako emaitza on nahiz txarrek, ez diete loa kentzen. Beraiek honetan jarraituko baitute, lehen aipaturiko ilusio hori bizirik mantentzen duten bitartean.



Joseba eta Jon, Olaberriako kart zirkuituko aparkalekuan.

Autoekiko eta abiadurarekiko zaletasuna betidanik izan dutela baieztatu ziguten hirurek. Jonek adierazi zuenez, "aitarekin txikitatik joan izan naiz Jaizkibeleda edo Urrakiko igoerak ikustera. Horrek, nahi ta ez, zerbait sortzen du zure barrenean. Beraz, lehiatzeko aukera izan nuenean, autoa erosi eta hau prestatzen hasi nintzen". Josebak, lagunarteak ere zaletasun honetan bere garrantzia izan duela azpimarratu nahi izan zuen. Dena dela, hirurak bat etorri ziren afizio honen arrazoi nagusia aipatzerakoan: "Gure helburua ez zen, edo ez da Sainz edo Mcrae bezalakoak izatea. Gu, autoarekin korritzeagatik eta abiadurak isurtzen dituen sensazio horiek sentitzearren sartu ginen honetan", azaldu zuen Roberrek.

Arestian aipaturiko hiru modalitate horietako bat aukeratzeko eskatu genienean, aho batez erantzun zuten hirurek. "Rallya dugu gogokoena. Duela hilabete inguru 500 km inguruko proba batean parte hartu genuen Nafarroan, eta niri behintzat oso polita iruditu zitzaidan", esan zuen Josebak. Rally hauetan, igoera, jaitsiera, gurutzbide zein bestelakoak topa ditzakete, eta hauek dira azken batean gidari hauek gehien estimatzen dituzten

ibilbideak. "Hemen eta Bizkaialdean ezberdinak dira proba hauek. Errepideak zabalagoak dira, gora eta behera egiten dugu, eta gainera rallyek ez dituzte 150-200 km baina gehiago edukitzen", gainerazi zuen Jonek. Horretaz, rallyak igoerak baina kuttunagoak dira hirurentzat, "izan ere, igoeretan entrenamendu saio bat eta beste bi manga besterik ez daukazu".

“Zaletasun hau garestia da oso. Lasterketetan izena emateak 20.000 pezeta balio du”

Auto-lasterketen mundu hau hobbytzat edukirik, hankak lurtean dauzkatela erakutsi ziguten. "Oso zaila da hau ogibide bilakatzea", aitortu zuen Josebak. Baina zein da aurrerapausu hori emateko traba nagusia? "Dirua" erantzun zuen Roberrek bitan pentsatu gabe. Jonen esanetan, "enpresaz enpresa ate-joka aritzen gara nolabaiteko babes edo diru laguntzaren bat lortu nahian, baina oso zaila da". Ez

ziguten denboraldiak bere osotasunean duen kostuaren zifra zehatzik eman, baina lasterketa bakoitzeko 40.000 pta. inguru xahutzen dituztela argi utzi nahi izan zuten. "Autoaren mantenimendua ez da hain garestia, kubiartak aldatzen dira gehienbat. Garestia, guretzat behintzat, izen-ematea da. Aurten, 20.000 pta ordaindu behar izan ditugu lasterketa bakoitzean. Gainera, lasterketetako sariekin ezin duzu gauza handirik egin. 35.000 edo 40.000 pezeta poltsikoratu nahi badituzu, klase horretako sailkapen nagusia irabazi beharra daukazu. Eta azken batean, diru hori gasolina eta izen ematean joaten zaizu", adierazi zuen Roberrek.

Proba hauetan abiadura handian gidatzen denez, istripu arriskua handia da era berean. Hala ere, beraiek ez dira kontu horrekin larregi arduratzen. Jonen esanetan, "abiadurak ez digu horrenbeste beldur ematen. Arrisku handiagoak ekar ditzake errepidearen egoerak, asko aldatzen baita lasterketan zehar. Ustekabean, grabilla, lokatza edo beste gauza mordo batzuekin topo egin dezakezu, eta horiek dira ekiditen zailenak". Josebak zerbait gehitu nahi izan zien Jonen hitzei: "Ikusleek ere bere garrantzia daukate. Batzuk ez dira ondo kokatzen edo moz-

aren garrantzia

kortuta joaten dira edo... Dena dela, ikusle gehienen jarrera txalogarria izaten dela esan beharra dago".

Ezin aipatu gabe utzi kopilotuen lana. Hauek dira gidariari uneoro laguntzen diotenak, bihurgunearen xehetasunak ematen dizkietenak. Jon hauetaz fidatzen da, "baina bihurguneren batean indikazioetan huts egiten badu, hurrengoan ez diozu kasurik egiten". Kopilotuak, rally nahiz rally-spintetan gidariaren alboan esertzen dira. Igoeretan, ordea, ez daukate partehartzerik.

Kirola den heinean, lasterketa hauetan ere lehiakortasuna handia da. "Bai, bada-go lehiakortasuna. Esaterako, nire kategorian ia beti hiru lagun aritzen gara hor borrokan, baina pikea, "pike sano" deitzen zaion hori da", argitu nahi izan zuen Jonek. Nolanahi ere, hiruren helburua ondo pasatzea dela aitortu ziguten. Roberren ustez, "ezin diogu geure buruari beste helbururik jarri. Ilusioa mantentzen dugun bitartean, lehiatzen jarraituko dugu. Agian, Kopa Nazional batean partehartzea gustatuko litzaiguke baina hori ere zaila da oso". Jonek ez dauka zalantzarik, "aspertu arte arituko gara honetan. Ahal dugun guztiena ibiltzen saiatuko gara, eta ea noiz arte irauten dugun".

Lasterketa hauetan erabiltzen diren autoak ez dira nola nahikoak, ondo prestatu-rik egoten dira. Kotxea erosterako orduan aldizkari berezi batean azaltzen diren eskaintzetaz baliatzen dira. Joseba: "Lehen autoa kalekoa izan zen, AX bat. Beste biak erosteko, aldiz, aldizkari horretan begiratu dut". Autoak berak izan ditzakeen akatsak Jonek konpontzen ditu. "Zerbaitetarako da mekanikoa ezta?", dio Roberrek.

Halaber, kirol minoritario honetan topatu dezaketen trabarik handiena diruarena da. Beraiek jo eta fuego aritzen dira nolabait-teko babesa, edo dirua lortu nahian. Bestalde, azken aste hauetan, itxaropenaren atea zertxobait ireki ditzakeen berri bat iritsi zaie. Josebak iragarri zuenez, "Nafarroako gobernuak diru partida berezi bat emango die enpresei, edozein modutako ekintzak bultzatzeko. Gero, enpresak gastuen %50a ordaiduko luke bakarrik. Ea hemen ere horrelako zerbait gertatzen den".

Nahiz eta oraindik ere honetan hasiberriak izan, lasterketa hauetan hasteko asmoa duten gazteei aholku bat igorri nahi diete: "Lehenik eta behin kotxe arrunta erosi dezatela, ez dezatela auto zehatz bat gutuziatu".

Joseba eta Rober elkarrekin aritzen ziren hasieran.



MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B

Tel: 943 72 16 63

ZUMARRAGA



HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42



HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58



BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3

☎ 72 61 13

ZUMARRAGA



Legazpi, 5

☎ 943 726274

ZUMARRAGA



Olentzero

Lehengo batean, Otamotz egiten dugun lagunok mendira joan ginen perretxiko bila (ez dugu esango nora) eta galdu egin ginen. Parranda egiten mendian ibiltzen baino ohituagoak baikaude! Hurrunean baserritar bat ikusi genuen asto gainean eta berarengana joan ginen etxera itzultzeko bidea aurkitzen lagundu gintzan. Hura ezustekoa... Olentzero zen! Oso kazetari profesionalak garenez, boligrafoa eta papera poltsikoan genituen eta ezin Olentzerori galdera batzuk egiteko aukera hura galdu!

Izan ere, denok dakigu ikazkina dela, abenduaren 24ko gauan opariak banatzen dituela, pipan erretzen duela, arraultza frijituak eta txorixoa gustukoak dituela... baina, Urretxu eta Zumarragako haurrak aurten ondo portatu al dira? Zer opari jasoko dituzte? Zer mokadu utzi behar zaio Olentzerori gure etxean opari ederrak utzi ditzan?

Olentzerok galdera hauek guztiak eta beste asko erantzun zizkigun gustura asko eta, gainera, perretxiko batzuk non topatu ere esan zigun etxera esku hutsik itzul ez gintezen.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ni ez naiz sekula umea izan, zaharra sortu nintzen eta beharbada horregatik izango dut hain gustuko haurrei opariak egitea.

-Olentzero ez bazina, zer gustatuko litzaizuke izatea?

Pilotaria, pilota asko atsegin baitut.

-Gabonetatik kanpo, zer egiten duzu?

Dakizuenetz, ikazkina naiz, baina lanik ez dudanean herri-jaisten naiz haurrak ondo portatzen ari diren jakiteko.

-Urretxu-Zumarragako neska-mutikoak ondo portatu al dira aurten?

Gehienak ondo portatu dira, bai, eta opari dexente ekarriko dizkiet.

-Zer opari da aurten gehien eskatu dizutena?

Kamiltxo, euskaraz hitz egiten duen hartza, asko eskatu didate.

-Iaz patineterik sobratu al zitzaizun?

Gezurra badirudi ere, bakarren bat sobratu zitzaidan. Aurten gehiago eskatu dizkidate, gainera!

-Nola lortzen dituzu hainbeste opari?

Denak ezin ditut nik egin eta batzuk enkarguz ekartzen dizkidate.

-Otamotzeko lagunoi zer oparitu behar diguzu?

Osasuna eta lana (lan gehiago?).

-Ba al dago sekula lortzerik izan ez duzun opariren bat?

Pakea. Hau lortzeko Papa Noelek, Santa Clausek, Erregeek eta nik sekulako ahaleginak egiten ditugu urterero, baina ez dago modurik!

-Zergatik izaten duzu beti aurpegia zikina?

Gabon-egunean denboraz oso larri ibiltzen naiz eta ez dut aurpegia garbitzeko astirik izaten. Gainera, gabon-egunean aurpegia zikina eramaten dudanez, urtean zehar kalean lasai asko ibili naiteke inork ezagutzeko beldurrik gabe.

-Nola lortzen duzu etxe guztietara joatea?

Asto asko ditut eta oso azkarrak gainera, egunero entrenatzen baitute. Geltokietako jaietako lasterketa aise irabaziko lukete! Gainera, asto bat nekatzen denean beste batek errelebua hartzen dio.

-Zer mokadu nahi duzu haurrek uztea?

Gaileta batzuk eta patxarana. Dena den, patxaran asko edatea ez zait komeni, azido urikoarekin arazoak baititut.

-Zapata zikinak uzten dituzten haurrei oparirik egiten al diezu?

Zapata garbiak edo zikinak uztea berdin zait, baina amek nahiagoko dute garbiak uztea!

-Erregeak zure lagunak al dira?

Lagunak gara, bai, eta Gabonen ondoren parranda eder-rrak egiten ditugu laurok elkarrekin.

-Zein da zure lagunik onena, Meltxor, Gaspar ala Baltasar?

Meltxor. Izan ere, biok zahar xamarrek gara eta antzeko zaletasunak ditugu. Herrietako obrak ikustera, adibidez, elkarrekin joaten gara.

-Gutun asko jasotzen dituzu, ez al zara antraxaren beldur?

Euskal Herrian ez dago antraxaren arriskurik. Santa Claus ni baino kezkatuago dago...

-Gutunez gain, beste zer edo zer irakurtzen al duzu?

Baina... ba al dakizue zenbat gutun irakurri behar ditudan? Gabonen ondoren ez dut ezer irakurtzeko gogorik izaten.


-Pipan, tabakoaz gain, beste zer edo zer sartzen al duzu?

Ez, ez... tabakoa bakarrik! Beste zer edo zer sartuko banu burua nahastu eta opariak gaizki banatuko nituzke.

-Bukatzeko, emazterik ba al duzu?

Ez. Lagun asko ditut, baina emazterik ez dut. Nik ere, beste askok bezala, nahiko gutxi ligatzen dut.

Tel.-fax: 943 72 12 14
e-mail: info.gainzuri@educanet.net
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu



*Mara-mara elurra
txuri-txuri gailurra
Gabon egun hauetan
zure Zorion Agurra*



J. M. IPARRAGIRRE INSTITUTUA
Tel.-fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13
e-mail: jmiparragirre@edunet.es
Sta. Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu



kilometroak 2002

**elkarren
beharrean**

urretxu-zumarraga

Gabon garaia, gure artera
Ailegatu zaigu berriz
Bake giroan ta itxaropenez
Ospatutzeko egarriz
Nagusi bedi giro goxoa
Alaitasun eta irriz
Kemena horretan jarriz.